

PLANOA

Unikamera produkzio bat egitea helburu dugunez, planoak lanerako gure unitatea da. Esanahia duen ikus-entzunezko unitaterik txikiena da.

Planoak zehaztu aurretik ikus-entzunezko beste unitate batzuk ere definituko ditugu, hauek erabileraren momentua eta erabiltzailearen arabera hartu dezaketenez esanahia ere kontuan hartuz.

Unitateak :

Hartzea, planoak, eszena eta sekuentzia dira. Esan bezala, erabilera momentua eta erabiltzailearen arabera unitate hauek esanahi desberdinak har ditzakete.

Bi momentu desberdinduko dira:

1.-Egite fasea. Ikus-entzunezko produktu bat pentsatzen, planifikatzen, grabatzen edo postproduzitzen ari garen momentua. Ikus-entzunezko produktuaren aurreproduktio, produktio edo postproduktioaz ari gara.

2.- Aztertze fasea. Produktu bukatuaren analisia.

Behin ikus-entzunezko produktu bat bukatuta dagoenean egin dezakegun azterketetan erabiliko ditugun ikus-entzunezko kontzeptuez ari gara.

HARTZEA

Egite fasean bakarrik erabiliko den unitatea da. Zehazki produkzio fasean. Gero planoak bihurtuko denaren ahalegin desberdinak dira. Ikus-entzunezko produktu bat grabatzen ari garen momentuan, paperean planifikatutako planoak ez dugu lehenengo saiakeran lortuko, interpretazio arazoak direla, erazo teknikoak direla edo bestelakoak direla ahalegin bat baino gehiago egin beharko dira gero plano bihurtuko den hori lortzeko. Horietako bakoitzari hartzea deitzen zaio.

Edozein klaketatan bere tokia du. Ingeleseko TAKE.

<http://t0.gstatic.com/images?q=tbn:P3sY0U0bwiupmM%3Ahttp://gmbuelna.files.wordpress.com/2009/02/claqueta-cine1.jpg>

ABBAS KIAROSTAMIREN PARTEA YOUTUBERA IGO GERO ERREFERENTZIA JARRI AHAL IZATEKO

ESZENA EDO SEKUENTZIA MEKANIKOA

Klaketako irudian ikus daitekeen moduan, ingeleseko SCENE hitza agertuko bada ere, sarritan gidoietan eta planifikazioetan sekuentzia hitza agertuko zaigu.

Gaztelarazko produkzioetan nahiz eta unitate berdinari buruz ari garen Eszena kontzeptua analisiaren momentuan erabiliko da eta sekuentzia mekanikoa, egite fasean.

Berez bi sekuentzia mota leudeke, bat sekuentzia mekanikoa eta bestea sekuentzia narratiboa. Lehenengoa egite prozesuaren barruan aurreproduktio eta produktio faseei dagokie eta bigarrena analisi edo aztertze faseari dagokio.

Ikus-entzunezko Bitartekoen Teknologia

Irak.: Bea Narbaiza

Aurreproduzio fasean sekuentzia produkzio taldeak erabiltzen duen kontzeptua da. Lana planifikatzeko erabiltzen den unitatea da. Espazioek baldintzatuko dute, hau da dekoratu edo lokalizazioak. Dakigun moduan, ikus-entzunezko produktu bat osatzen duten planoak ez dira grabatzen gero produktu bukatuan ikusten ditugun ordenenean baizik eta denbora eta diru amortizazioak arrazoi, toki berean garatuko diren ekintzak batera grabatuko dira, nahiz eta bukatutako produktuan bi momentu desberdinetan agertu.

Hona hemen esaterako Julio Medemen “La pelota Vasca. La piel contra la piedra”. Pelikula honetan pertsonai desberdinak agertuko dira beraien iritzia emanaz, baina jakin badakigu pertsonai bakoitzari jarraian egin zitzaiola elkarriketa nahiz eta gero, pelikularen momentu desberdinetan agertu.

<http://www.youtube.com/watch?v=A6nVpbQhvRQ>

Lana planifikatzearen ardura, besteak beste, produkzio taldearena da. Produkzio taldeak egingo du lan plangintza, hau da noiz zer grabatuko den produkzio taldeak erabakiko du eta horretarako erabiliko duen lehenago irizpidea espazioaren izango da.

Gidoia aztertuko du eta gidoian agertzen diren espazioak bereiziko ditu, desglosatuko ditu, gero espazio koinzidenteak berriro ere pilatzeko eta horren arabera lan plangintza bat egiteko.

Edozein gidoitan goiko partean eta letra handiz, sekuentzia mekanikoaren zenbakia, ekintza gertatuko den tokiaren izena, horren arabera izango baita sekuentzia zenbakia, eta argi baldintzak agertuko dira.

16. SEK MAIALENEN LOGELA BARRUALDEA GAUA

Eszena edo sekuentzia produktoreen ahotan, denbora eta espazio batasuna duen unitatea da, denbora jakin eta espazio berdinean gertatzen denak osatuko luke. Denbora edo espazio aldaketarik balego eszena aldaketa bat legoke eta ondorioz beste egun batean grabatzeko planifika lezake produkzio taldeak. Bukatutako produktu baten unitate hau definitzeko erabiliko den kontzeptua eszena izango da.

SEKUENTZIA NARRATIBOA

Kontzeptu hau, aztertze faseari dagokio soilik. Sekuentzia, akzio batasuna duen unitatea da. Ekintza bat hasi eta garatu eta bukatu egiten da.

Batzuetan, gehienetan, plano eta eszena desberdinetan banatzen da.

Trainspotting Eskozia 1996 Danny Boyle. izen bereko Irvin Welshen liburu batean oinarrituta.

Adibidean ikusi daitekeen bezala scene 11 esaten du. Baina guk ondo dakigun moduan eszena desberdin asko daude, espazio desberdin asko daude, lokalizazio ezberdin asko daude.

<http://www.youtube.com/watch?v=zgCprJPSlpA>

Gutxienetan sekuentzi oso bat plano batean garatzen da Plano sekuentzia izena hartu du horrek.

Orson Wellsen “Touch of evil” 1958 izango da famatuena.

<http://www.youtube.com/watch?v=Yg8MqjoFvy4>

Russian Ark. Wikipediaren arabera, Aleksandr Sokúrov en 2002. Urteko pelikula hau, editatu gabekoa da eta 90 minututako hartze bakar batean grabatuta steady-cam baten bitartez.

<http://www.youtube.com/watch?v=nrGgW816pJE&feature=related>

PLANOAK

Beste kontzeptuak argituta, planoak egite eta aztertze faseetan agertuko zaigun unitatea da.

Ikus-entzunezko produktu guztiak planoetan banatu daitezke eta ondorioz, planok planifikatu behar dira.

Planoa esanahia duen ikus-entzunezko unitaterik txikiena da.

Bere izendapena, enkuadreak betetzen duen espazio eta kameraren mugimenduaren arabera izango bada ere, planoak planifikatzerakoan ezinbestekoa da aurreko eta ondorengo planoak kontuan hartzeaz gain, planifikatzen ari garen plano horretatik kanpo dagoena ere kontuan hartzea. Eremuz kanpokoa hain zuzen ere.

Esan bezala, planoak erakusten duenaren arabera definitzen dira, eta plano moten tipifikaziorako erabiltzen den erreferentzia giza gorputza izaten da. Horrela agertzen den giza gorputz kantitatearen arabera sailkapen bat aurkituko dugu toki askotan. Nire ustez planoen definizio egokiago bat egingo genuke subjektu eta espazioaren arteko harremanen arabera tipifikazio bat erabiliko bagenu. Espazioa beti baitago presente. Planorik motzenez ere espazioaren erreferentzia bat agertuko da.

Sailkapen zehatzagoak edo zabalagoak egiten badira ere, guk honako hauek bereiziko ditugu.

Plano orokor zabala.



Subjektua agertu daiteke edo ez goiko irudiko kasuan bezalaxe. Ekintzaren espazioan kokatzeko baliagarria da. Espazioa da jaun eta jabe eta sarritan subjektua agertzen bada, azken hau gutxiesteko erabiltzen da. Testuinguruko plano bat da.

Plano orokorra.



Hemen subjektua agertu agertzen bada ere, oraindik orain subjektu eta espazioaren arteko harremanean espazioak pisu handiagoa du. Plano honetan ekintza gertatuko den lekua aurkezpena egiten da, subjektua bere ingurunearekin erlazionatzen da.

Plano osoa.



Subjektua gorputz osoz agertzen da, espazioak pisua galtzen du aurreko bi planoekin alderatuz, hala ere espazio eta subjektuaren arteko harremanean, biak ala biak tokia okupatzen duten nahiz eta gure ikusmen egozentrikoak bultzatuta sarritan kontzientego garen subjektuaren pisuaz.

Plano amerikarra



Gizakiaren gorputza orkatilen gainaldetik moztuta azalduko da. Beste planoekiko subjektuaren tamaina handiagoa da. Subjektu eta ikuslearen arteko hurbiltasunaren inpresioa ematen du. Espazioak gero eta leku gutxiago okupatzen du eta subjektua nagusitzen joaten da harreman horretan. Hala ere espazioak irudiaren parte izaten jarraitzen duenez erabat zaindu behar da.

Plano ertain luzea



Plano ertainaren definizioan, muga, gerriak markatuko du. Hortik aurrera gerritik behera moztuko duen plano ertain luzea izango da eta gerritik gora moztuko duena ertain motza. Adibide Honetan nabarmena denez, subjektu eta objektuen arteko interakziorako erabilgarria da.

Plano ertain motza.



Ertain luzeak gerririk behera mozten badu, ertain motzak gerritik gora moztuko du. Subjektuak nagusitasuna izango badu ere espazioak bere tokia okupatuko du, nahiz eta goiko irudian bezala duen garrantzia txikitzeko edo subjektuarena azpimarratzeko desfokatuta agertzen den. Hori aurrerago ikusiko dugun moduan beste aukera bat izango da enfoke inguruarekin jokatuz gauza batzuk beste batzuk baino gehiago azpimarratuko ditugu. Plano ertain honek subjektuaren egoera animikoarekiko hurbiltasuna erakutsiko du. Plano ertainak biak, oso erabiliak dira elkarriketetan. Gogoan hartu ertain luzean eskuak, normalean enkuadre barruan egongo direla, eta adierazpide handikoak izan daitezkeela. Eta normalean nahiz eta goikoa adibide izan ez, ertain motzean eskuak enkuadretik kanpo geratuko dira.

Lehen plano



Aurpegiak pantailaren gehiengoa okupatuko du inguruko elementuak baztertuz. Bularraren zati bat ere agertzen da. Plano mota hau oso indartsua da eta ikuslearen interesa areagotu egiten du. Beste plano batzuetan ikusi edo apreziatuko ez litzatekeen keinua oso garrantzitsua da plano honetan.

Hala ere, pikatu bat izanik zeruk okupatzen duen espazioa lokalizazioaren detaileek okupatu ditzakete, horrela behar badu, plano indartzeko.

Lehen lehen plano



Aurpegia eta bere aurrean kokatutako elementuak dira jaun eta jabe. Horrelako planoak oso indartsuak dira, beraz ondo planifikatu behar dira, erakutsiko den pantailaren tamaina ere kontuan hartu behar da, tamaina txikiago batean errazagoa da zenbat eta handiagoa, orduan eta indartsuagoa.

Xehe planoak



Sarritan xehe planotzat hartzen dira gorputzeko atal solteak, eskuak, begia...
Egia esan, normalean xehe planoak bestelako plano batean aintzat hartuko ez genituzkeen objektuei garrantzia emateko erabiltzen dira.
Sukaldean nabarmenduko ez litzatekeen aiztoaren planoak, erlojuarena, ohar batena...

Esan bezala, nahiz eta planoak sarriegi agertzen den giza gorputz kopuruaren arabera sailkatzen diren, subjektu eta espazioaren arteko harremanaren ondorio dira. planorik motzenez ere, espazioaren erreferentzia bat agertuko da.
Espazioak beti irudiaren parte direnez, beraien agerpena zaindu beharra dago.

2. Ariketa

Eskuko kamera bat hartuta:

- 1.-Sei egongela desberdinen planorik zabalena egin.
- 2.-Sei egongela horietatik egokiena dena aukeratuta, sei ikuspuntu desberdinetatik, ahalik eta planorik zabalena eman.
- 3.- Sei ikuspuntu horietatik baliagarrienen zerrenda bat egin eta baliagarritasun horren zergatiak adierazi. Bestalde baliagarriak ez diren ikuspuntuen baztertzearren arrazoi bisualak eman.
- 4.- Baliagarri den ikuspuntu horietako batean, sei ehun eta kolore desberdinak jantziko dituen subjektu bat sartu. Jantzi eta kolore desberdin bakoitzeko plano bat egin.

Ikus-entzunezko Bitartekoen Teknologia
Irak.: Bea Narbaiza

5.- Ehun eta kolore erabilgarrien zerrenda bat egin eta zergatiak adierazi. Gauza bera erabilgarriak ez diren ehun eta koloreekin.

6.- Aukeratutako egongelan, aukeratutako ikuspuntutik, aukeratutako ehun eta koloreak jantzita dituen subjektuaren plano mota desberdinak egin.

7.- Aukeratutako ehun eta koloreak jantzita dituen subjektuaren planoak egiteko sei kale desberdin aukeratu.

8.- Egindako planoak ikusi eta aztertu:

- a) espazioak irudian betetzen duten papera.
- b) ikuspuntuak betetzen duen papera.
- d) jantzi eta koloreek betetzen duten papera.
- e) kalean grabatu izanaren ezaugarriak.